

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko urriaren 26a. IX. urtea. 2.423. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

Isidro Lopez Mendizalea

## «Mendizaletasunaren mundua triste ikusten dut; gazteria ez doa mendira»

Euskal mendi guztiak igo ditu Isidro Lopez mendizale tolosarrak, hau da, Euskal Mendi Federazioaren katalogoan izendaturik dauden 594 tontorrak

Mendian eta elkarteen irteeretan burusoil eta kaskazuri asko ikusten dituela dio Lopezek, baita bide onena askotan jaitsieran aurkitzen dela ere **o6**



Zerrendako azken tontorra: Arabako Karria mendia. Isidro Lopez ezkerrean, Roca eta Ortizekin. HITZA

## Mankomunitatearen plangintza martxan jarri dute eskualdeko hamabi herritan

Hondakin organikoaren %100 herrian bertan birziklatu nahi dute hainbat herri txikitan; konpostagailu komunitarioak eta norbanakoei egokituak jarriko dituzte **o4**



Lizartzako bi gunetan konpostagailu komunitarioak jarri dituzte. A. MAZ

## Kultur eskaintza oparoa izango dute datozen egunetan, Berastegin

Kultur astea hasiko da gaur, eta azaroaren 4ra bitarte hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izango da; postu eta lehiaketa ugari hartuko dituen azken eguneko azoka berezia izango da ekitaldi nagusia **o7**

## Valladolideko dantzariekin batera egingo dute dantza Udaberriko kideek

Tolosako dantza taldea elkartrukea ari da burutzen Valladolideko dantza taldearekin; Berdura plazan izango da ikuskizuna, bihar **o5**

## Bost garagardo mota dastatzeko aukera izango da Urrifosten

Anoetako Gazte Asanbladak, herriko plazan eta gaztetxean, egun guztiko jaia antolatu du, Keizpean eta Muturbeltzen kontzertuak barne **o2**

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



**Irudia** ◊ Tolosa

## LARRAMENDI AUZOKO FESTAK EURIAREKIN HASI DIRA

Tolosako Larramendi auzoko festetan gaur izango bada ere txupinazoa, atzo egin zituzten zenbait ekitaldi. Hala, atzo goizean, eguraldi euritsuari aurre eginez, Uzturre mendira igo ziren 25 pertsona inguru, eta gero auzoko Plan B tabernan hamaiketako egin zuten (irudie-

tan). Gauerako, *Sua* filmaren proiektzioa eta karaokea aurreikusita zituzten. Gaur ere egun euritsu iragarria egon arren, gogotsu ekingo diote festei auzotarrek. 17:00etan, txokolata banatuko dute; 18:00etan izango da txupinazoa eta ondoren buruhandiak izango dira,

dultzaineroek eta trikitilariak alaituta; 20:00ak aldera hasiko da pintxo poteoa, bai txosnan bai auzoko tabernetan; 20:30ean zezen suzkoa izango da eta 23:00etan hasiko da kontzertua, Atila y los Unos eta Gargantas Desgarradas taldeekin. G. ZABALZA

## Bost garagardo dastatzeko aukera Anoetako Urrifest egunean

Anoetako Gazte Asanbladak antolatu du, biharko; garagardo dastatzearekin hasiko da, 18:30ean, plazan

**Imanol Garcia Landa** Anoeta

Urrifest eguna antolatu dute Anoetan biharko. Aurtengoa bigarren aldian da garagardoaren inguruko ekitaldia antolatzen dutela Anoetako Gazte Asanbladak herrian. Aurten bost garagardo dastatzeko aukera izango da, horietatik hiru euskaldunak. Etxe-

andia (Urduliz), Naparbier (Iruñea), Etxeko bob's beer (Hazparne), Grimbergen (Belgika) eta Paulaner Salvator (Alemania) garagardoak egongo dira dastatzeko. Pitxarrak etxetik eramateko azaldu dute antolatzaileek. Pitxarrik ez duenak bertan salgai izango ditu 1,5 eurotan.

Aurten Urrifest eguna plazan hasiko da eta 18:30etik aurrera izango da garagardo dastatzea. Ondoren, gaztetxean jarraituko du. 21:00etik aurrera, garagardoz gain, horrelako azoketan izan ohi diren jakiak egongo dira aukeran. Musika ere ez da faltako afalostean gaztetxean. 23:00etan

hasiko da kontzertua eta bertan bi talde izango dira: Keizpean eta Muturbeltz. Keizpean Gipuzkoa osoko musikariz osatutako taldea da. Muturbeltzeko kideak Bidasaldetik etorriko dira. Dagoeneko

**Anoetako plazan eta gaztetxean egingo dira Urrifest eguneko ekitaldiak**

disco bat argitaratu du talde horrek, *Amildegia maitea* izeneko. Anoetako Gazte Asanbladatik gonbitea egin dute Urrifest egunean parte hartzeko.

## Mus txapelketarekin hasiko dira gaur Olarrain auzoko festak

Hiru egunez antolatu dituzte ekitaldian Tolosako auzoan; mendi bizikleta martxa izango dute igandean

**I. Garcia Landa** Tolosa

Tolosako Olarrain auzoan festak antolatu dituzte gaur hasi eta igandera arte. Gaur, 22:00etan, mus txapelketa izango dute auzoko elkarteak. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du izena ematerakoan. Sariak ondorengo-

ak izango dira: lehenengoarentzat, arkume bat eta bi cava botila; bigarrenagoarentzat, bi oilasko eta bi cava botila; eta hirugarrenarentzat, bi untxi eta bi cava botila.

Bihar, larunbata, herri afaria izango dute, 21:00etan hasita. Igandea izango da jaietako egun nagusia. Abraham Olano lagunarteak antolatuta, XXIV. Mendi Bizikleta Martxa egingo dute. 09:30ean hasiko da, eta 08:00etatik 09:00etara eman daiteke izena auzoko elkarteak. 14 urtetik gorakoek eman dezakete izena. Probaren amaieran, parte hartzaileen

artean opariak zozkatuko dira. Mendi martxa anoa gunea, medikua, laguntza mekanikoa eta dutxatzeko aukera izango da.

**Mendi martxaren parte hartzaileen artean opariak zozkatuko dira amaieran**

12:00ak aldera, hamaiketako izango da eta haurrentzako ere jolasak antolatuko dituzte. 14:30ean izango da herri bazkaria, eta giroa bertsolariek eta trikitilariak alaituko dute.

## Lau t'erdiko txapelketaren final laurdenen ligaxka hasiko da asteburuan

**I. Garcia Landa**

Lehen mailako Lau t'erdiko pilota txapelketaren final laurdenetako ligaxkari hasiera emango diote asteburuan. Bengoetxea leitzararak partida zaila izango du bihar, Iruñean, aurrean Olaizola II.a izango baitu. Barriola leitzararentzat txapelketako lehen partida izango da astelehenean, hilak 29, Berasaluze VIII.aren aurka jokatuko duena Gernikan.

Bigarren mailan, berriz, ligaxkako bigarren partida jokatuko dute Jaunarena leitzararak eta Olazabal aresoarrak. Olazabalek lehen partida irabazi zuen eta gaur Elezkano II.aren aurka neurtuko ditu indarrak Arrigorriagan. Jaunarenak, lehenengo galdu ondoren, Iruñean jokatuko du bihar, Lemunoren aurka.

## Identibuzz proiektua aurkeztuko dute Anoetan, udal aretoan

**I. Garcia Landa**

Identibuzz proiektuaren aurkezpena egingo dute, bihar, Anoetako udal areto nagusian. 10:30ean hasiko da aurkezpena. Identibuzz proiektua martxa jarri nahi dute Tolosaldean. Helburua kultur aniztasuna lantzea da; horretarako, mugikorra erabiltzen da grabazioetarako, eta interneta zabalkuntzarako.

Grabazioa bi asteburuetan egingo litzateke, eta gero proiektua bideratzen duen enpresak material guztia jasoko du, eta horrela, 5-10 minutuko bideoa osatuko du, euskaraz eta gaztelera. Abenduaren 18an, ostirala, izango da bideoaren aurkezpen publikoa Tolosako Topicen. Eta gero herriz herri proiektatzeko aukera izango da.

## → Laburrak

### Hauteskundeei buruz batzarra, ezker abertzaleak

**TOLOSA** › Tolosako ezker abertzaleak urriaren 21eko hauteskundeetako emaitzen inguruko batzarra antolatu du. Batzarra, datorren astelehenean, hilaren 29an, izango da. Tolosako kultur etxean izango da eta 20:00etan hasiko da.

### Adinekoen bazkariarekin hasiko da Kulturaldia

**IKAZTEGIETA** › Igande honetan emango diote ikaztegiaren aurtengo Kulturaldiari hasiera. Adinekoek bazkaria egingo dute Herrigintza elkarteak, 14:00etan, eta hori izango da lehenengo ekitaldia. Adinekoen bazkaria herriko jaietan egin ohi dute, baina aurten festetatik kanpo egitea erabaki dute eta horregatik pentsatu zuten Kulturaldiaren egitarauan sartzea.

# Egoteko espazio soil bat baino gehiago

Nerabeek euren interesak eta ekimenak aurrera eramateko jarri dute gaztelekua martxan Amezketan

**Imanol Garcia Landa** Amezketan

Amezketako Gaztelekua ireki bere dute. Frontoiaren barruan dagoen bi solairuko lokalean dago, eta leku fisiko bat baino gehiago izatea nahi dute. Kalexka enpresak kudeatzen du eta bertan aritzen da Alazne Mantxola gazte suspertzaila. Mantxolak dienez, «gaztelekua ez da nerabeek herrian egoteko espazio soil bat. Beraien interesak eta ekimenak aurrera eramatea eta horretan laguntzea da asmoa. Nerabezaroa bukatzerakoan autonomia izateko eta beraiek gai izateko proposamenak aurrera eramateko». Horrez gain, gaztelekuak nerabeei herriko ekintza eta ekimenetan parte hartzea gehiago ahalbidetuko diela dio Mantxolak.

Gaztelekua osatzeak bere prozesua izan du. Lehenbizi diagnostiko bat egin zen martxoan, haur, nerabe eta gazteen inguruan, hau da, 0 urtetik hasi eta 30 urtera arte. Mantxolak berak egin zuen lan hori, eta atera den ondorio nagusia herrian ekimenen alde behar gehiena zutenak nerabeak zirela izan da.

«Haurrek aisialdiaren alde eskaintza zabala dute, alde batetik, guraso elkarteak egiten dituen ekintzagatik eta lan horretan udaletik jasotzen duten laguntzagatik, eta gero udalak udaleku irekiak antolatzen dituelako», azaldu du Mantxolak. «Nerabeek ez zuten bere ekimenak eta interesak aurrera eramateko gumerik, eta horregatik erabaki zen lanean hasiatekin», gaineratu du.

## Parte hartzearen garrantzia

Diagnostikoa egin eta gero, maizta aldera hasi ziren nerabeekin lanean. Prozesu parte hartzaile baten bidez, gazteek erabaki zuten gaztelekuan zer baliabide egotea nahi zuten eta ordutegia ere bertan erabaki zuten. Mantxolak esan duenez, «parte hartzearen hainbat alor landu ditugu. Alde batetik, zer egin nahi genuen, zertarako, eta ondoren gaztelekua nola hornituko zen erabaki zuten». Mantxolak garrantzi handia ematen dio parte hartzeari: «Prozesua eta zerbitzua ere parte hartzailea da, beraz hasieratik buztatu da gazteek beraiek erabaki hartzea».

Bost saio inguru egin ziren eta parte hartzea zabala izan zela dio Mantxolak. «Parte hartzea ikaskuntza prozesu bat da, horrega-



Gaztelekuaren inaugurazioa egin zuten orain bi aste. E.MAIZ



Gaztelekuaren beheko solairuan, besteak beste, mahai tenisa eta mahai futbola dituzte. E.MAIZ

tik txikitatik egon behar du aurrera horrek», gaineratu du. Nerabeei ere eskerrak eman dizkie Mantxolak: «Beraiek egindako lanagatik eman dugu prozesu guztia aurrera».

Yolanda Gorostidi zinegotziak azaldu duenez, «udalak hasieratik jarri zuen muga ordutegiarena izan zen, hau da, gau ez ezin zela irekita egon, ez bada une jakin batzuetan, eta 20:00 edo 20:30erako itxita egon behar zela. Bestela ez genuen beste mugarik jarri».

12 eta 17 urte arteko nerabeen-

tzat bideratu da gaztelekua, hau da, DBH eta Batxilergoko lehen mailako gazteentzat. Astelehena, asteazkena, ostirala eta igandetan, 17:00etatik 20:00etara dago zabalik, eta larunbatetan, 16:30etik 20:30era. Aurrera begira ikusiko dute ordutegia aldatzea komeni den.

Frontoiko lokalean dago gaztelekua eta bi solairu ditu. Behe solairuan mahaiak, mahai jokoak, mahai tenisa eta mahai futbola dituzte. Goiko solairuan, ordenagailua interneteko sarbidearekin, sofa, telebista eta X-boxa di-

tuzte. Udalak zehaztutako aurrekontu baten barruan erabaki zuten zer baliabide izango zituzten.

## Hiru urterako hitzarmena

Gorostidik azaldu duenez, proiektuarekin iaz hasi zen Amezketako Udala. Aurrekontuetan diru kopuru bat horretarako bideratua zegoen. 15-16 urteko gazteen aldeko lokal bat izateko eskaera aspalditik zetorrela dio Gorostidik. «Guk ez genuen nahi lokal bat eman eta horretan uztea. Alde batetik, gurasoen lasaitasunerako ere, begirale bat izatea nahi genuen. Gurasoen aldeko oraingo ez dugu kezarik jaso. Egia da ireki berria dela», gaineratu du zinegotziak. «Gurasoekin ere bilerak egin dira eta azaldu zaien nola izango den funtzionamendua. Beraien kezka ere bada ikasketak alde batera uztea ekarriko ote duen, baina mahaiak ere


Parte hartze prozesu baten bidez, nerabeek erabaki dituzte gunearen baliabideak

Gaztelekua 12 eta 17 urte bitartekoentzat da eta astero bost egunez izango da zabalik

badaude gaztelekuan bertan eta lanak egiteko ere erabili ditzakete».

Udalarentzat gauza berri bat da herrian gaztelekua izatea eta ikusten joango dira bere funtzionamendua nolako den. Kalexka enpresarekin hiru urterako hitzarmena egin dute. Denbora hori amaitzean, gaztelekuari buruzko balantzea egingo dute.

Nerabeen arteko harremanak sustatzea da hasierako asmoa. «Gaztelekuko zenbait arau oraindik ez dira zehaztu eta, beraz, sortzen diren arazoei denen artean erantzuna ematen joango gara», esan du Mantxolak. Bide batez, oraindik gaztelekua ezagutzen ez duten nerabeei ere deialdia egin die Mantxolak bertara joan eta parte hartzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Maioz: «Hauek egiten ari dira, baina zuk ere egin dezakezu»

Mankomunitateak, eskualdeko hamabi herritan, hondakin organikoen birziklapena bultzatu nahi du

## Asier Imaz

Tolosaldeko Mankomunitateak hondakin inguruko plangintza jarri du martxan eskualdean, hamabi herritan. Hondakin organikoen bilketa errotik aldatu nahi du, eta Eneko Maioz mankomunitateko zuzendari taldeko kideak onartzen duen bezala, helburua ez da nolanaikoa: «Herri hauetan sortzen den hondakin organikoen %100, bertan kudeatzea da asmoa». Hori lortzeko bidea, aldiz, konpostatzea izango da: norbanakoena eta komunitarioa.

Tolosaldeko Mankomunitateak irailean jarri zuen hondakin inguruko plangintza abian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Urtebeteko iraupena duen planak, formakuntza eta praktika uztartzen ditu. Eskualdeko hamabi herri txiki sartu ziren plangintza honen barruan,

## ↓ Plangintza

### HAMABI HERRIAK

- Aduna.
- Albiztur.
- Altzo.
- Amezketta.
- Asteasu.
- Berastegi.
- Berrobi.
- Elduain.
- Ikaztegieta.
- Lizartza.
- Orendain.
- Orea.

eta Eneko Maiozen esanetan, hauek izango dira bidea zabalduko dutenak: «Herri hauek pixka bat aurretik dabilzanak dira, baina hauetaz aparte, Zizurkil ere bide honetan urratsak ematen ari da. Azken finean, tipologia berdintsuko plangintza oso bat garatu nahi da eskualdean».

Horretarako beste herrietan azterketak egin beharko lirateke Maiozen esanetan: «Potenziala kalkulatu behar da, gutxi gora behera, konpostajea egiteko zein aukera dauden jakiteko. Hori banaka edo komunitario mailan izan daiteke». Hondakin organikoen konpostajearen onurak, ingurugirotik hasi eta maila ekonomikora iristen dira.

### Teoria praktikan jarriz

Mankomunitatearen plangintza barruan, jadanik Adunan eta Lizartzan jarri dute martxan konpostagailu komunitarioa. Hala eta guztiz ere, Maiozen esanetan, oraingoz, gune boluntario bezala planteatu dira: «Konpostagailu komunitarioa zer den jendeak ikustea nahi dugu. Gero, hamabi herri hauetan taldeak egingo dira, eta hainbat herritan, hasieratik %100 bildu nahi da. Beste herrietan, pausoz pauso joango gara». Lehen multzoan Orea, Orendain, Elduain eta Altzo daude.

Mankomunitateko kidearen esanetan, «konpostagailu komunitarioak eta norbanakoak jartzeko aukera egongo da herri guztietan», eta hori erabakitzea herritarren esku egongo da. Une honetan, Orendainen formakuntza ematen ari dira, eta hilabete hasierarako dena prest eduki nahi dute: «Ondoren, Orea hasiko gara, eta bi asteren bueltan, Orendainen bezala, konpostagailu guztiak martxan jarriko dira.



Lizartzan bi gune jarri dituzte konpostagailu komunitarioentzat. Irudian, frontoiaren ondoan dagoena. A. IMAZ

Helburua hondakin organikoa zirkuitutik ateratzea da, konpostajearen bidez. Zabor gutxiago sortzearen filosofia ere bultzatu nahi dugu, birziklatzea bultzatuz».

Emaitzen ideia bat egiteko, alde aurretik hainbat ariketa egin ditu mankomunitateak Orea eta Altzon. Astebetean, edukiontzi berdea hustu gabe eduki dute herri hauetan, ondoren, bertara bota den hondakin guztia sailkatzeko. Orea adibidez, edukiontzi berdeko hondakin %40 organikoa dela ikusi dute. Hau zabortegira bota beharrian herri birziklatzen bada, konpostagailuen bidez, onura izugarria ekarriko lukeela dio Maiozek: «Errefusa asko gutxituko genuke, eta ekonomikoki ere esanahi handia izango luke, zabortegian tonako 140 euro kobratzen baitute».

Hamabi herriren plangintza izan arren, eskualdeko herritar guztiak eman ditzakete urratsak, Maiozen esanetan: «Hauek egiten ari dira, baina edozeinek eska dezake konpostagailua. Norbanako kasuan, udaletxera edo mankomunitatera joan daiteke, eta komunitarioetan, udaletxearekin hitz egin behar da. Udaletxea noiz etorriko zain egon beharrenean, laguntza handia litzateke proposamenak aurkeztea».



Hosto lehorek ere euren txokoa dute Lizartzako konpostaje gunean. A. IMAZ



Konpostagailu komunitarioa zer den ikusteko aukera dute herritarrek. A. I.



harriduraz **TXOKA hitza**



irabazlea  
2 sarrerak

**LAGUN ARO GBC**  
**Mac Croc Fuenlabrada**  
saskibaloia partida

Urriak 28 • Igandea  
12:15  
Donostiako Ilunben

Bernabe Azpiroz Irazusta (Leitza)

\*Sarrerak jasotzeko, gaur HITZAren Tolosako egoitza pasatu



sarrerak



# Valladolideko dantzariekin dantza saioa eskainiko du Udaberrik bihar arratsaldean

Berdura plazan ariko dira, 18:00etatik aurrera; Valladolideko taldearekin elkartrukea ari dira burutzen

**Erredakzioa** Tolosa

Udaberri dantza taldeko kideek Valladolideko dantzarien bisita izango dute asteburu honetan. Eurekin batera emanaldia eskaintzeaz gain, asteburua elkarrekin igaroko dute, norbere kultura eta tradizioak partekatuz.

Aspaldikoa da Udaberri dantza taldeak elkartrukeak egiteko duen ohitura. «Gure aurreko belaunaldiek irakatsi ziguten modu berean, guk ere bestelako kultura, tradizio eta ohiturak ezagutzeko bideari jarraitu nahi izan diegu», diote dantza taldeak. Helburu horrekin joan ziren La Seca-ra (Valladolid, Espainia) pasa den uztailan.

Bertako dantza taldearekin igaro zituzten egun batzuk, eta asteburu honetan, elkartrukearen bigarren zatia betetze aldera, Valladolideko dantzarien bisita jasoko dute. Larunbatetik igandera bitarte izango dira Tolosan, eta dantza egiteaz gain, «gure herriaren, gastronomiaren eta ohituren zertzelada partek ematen saiatuko gara».



Valladolideko Folklore La Rotonda taldea izan zen, iaz Tolosan. M.U.

Larunbatean eskainiko dute bi taldeek emanaldia. Tolosako Berdura plazan izango da, 18:00etan hasita. 40 minutu inguruko saioan Valladoliden jotak eta gaita doinuak ezagutzeaz gain, bertako jantziak ikusteko aukera ere izango dute bertaratzen direnek.

Bestalde, Udaberriko dantzariak Gipuzkoako dantzak eskainiko dituzte, eta oso gutxitan eskaintzen duten Oriako *sorgin dantza* ere ikusgai izango da. Arratiako jota eta porrue ere dantzatuko dituzte, eta fandango eta

arin-arinarekin bukatuko dute emanaldiaren euren zatia.

Ikuskizuna amaitu ondoren, sagardotegian afalduko dute bi taldeetako kideek, eta igandean berriz, Tolosako Alde Zaharrean barrena ibiliko dira, «Valladolideko kideek Tolosa ezagutu dezaten».

«Bisita eta emanaldi honekin, eta pasa den asteko bertso afari eta DVDaren aurkezpenarekin, Udaberri dantza taldearen 55. urterrena ondo baino hobeto ospatuko dugu», adierazi dute.

## Uitzitik Orexarako 25. ibilaldia eta bazkaria egingo dute etzi

Kultur hamabostaldiak asteazkenean izango du jarraipena, Jon Maiaren 'Gazta zati bat' lanaren aurkezpenarekin

**I. Terradillos** Oresa

Iragan larunbatean hasi zen Oresako kultur hamabostaldia Abarlotz Olanoren kantaldiarekin, eta Nafarroako konkistaren inguruko hitzaldiarekin eman zitzaion

jarraipena asteartean. Bada, etzi Oresan tradizio handia duen ekitaldia egingo dute, Uitziti-Oresa irteera, hain zuzen.

25. ibilaldia izango da, eta parte hartzen dutenek, Uitzitik Oresarako bidea egingo dute, eta amaitzean, bazkarian bilduko dira denak Garazi Esnaolaren eta Garazi Egiuren abestiek alaituko dutelarik giroa.

Kultur hamabostaldiak datoren asteazkenean izango du jarraipena, Jon Maiaren *Gazta zati bat* dokumentalarekin.

## Mikologia azoka egingo dute etzi Leitzan, Mikologiaaldiaren barruan

Gaur eta bihar jasotako perretxikoak jarriko dituzte karrapean sailkatuta; pintxoekin dastaketa ere izango da

**I. Terradillos** Leitza

Leitzako V. Mikologiaaldia abian da, eta etzi izango du bere egun handia, karrapean 11:30etik aurrera izango diren ekintzekin. Batetik, helduek nahiz gazteek gaur

eta bihar egingo duten mendietan bilduko dituzten perretxikoen erakusketa izango da goizean zein arratsaldean. Bestetik, haurrentzako tailerrak izango dira, eta gaztetxoek astean zehar marraztu dituzten irudiak ere ikusgai jarriko dituzte.

Horretaz gain, perretxikoen inguruan zertxobait gehiago ikasteko proiektio didaktikoa jarriko dute. Eta hauek dastatzeko aukera ere izango da, xixekin prestatutako pintxo dastaketa egingo baitute.



## harpidedun izateak badu saria irabazleak

### 1 Iturrigoxo Jatetxea

Bi laguntzako asteburuko menua

**Enrike Arostegi Eguzkitza (Tolosa)**

Erreserba egiteko hilaibete:  
Amasa, z/g  
Amasa-Villabona  
www.iturrigoxojatetxea.com



### 2 Ostatu Hernialde Jatetxea

Bi laguntzako bazkaria edo afaria

**Isabel Aierza Uzkudun (Elduain)**

Erreserba egiteko hilaibete:  
Hernialde  
Tel.: 943 65 24 96



### 3 Tolosako babarrunak poltsa bana

M. Dolores Juantorena Baleztena (Leitza)  
Txema Zabala Maiz (Tolosa)  
Catalina Murua Artola (Amezketza)  
Aitziber Olaizola Jauregi (Baliarrain)  
Andoni Adobe Astigarraga (Tolosa)  
Alpino Uzturre Elkartea (Tolosa)  
Ines Berasategi Lardizabal (Tolosa)  
Ugaitz Iraola Iraola (Irua)



www.tolosakobabarruna.com

Saridunek etxean jasoko dute poltsa

### 4 Donostiako Aquariuma

Bi laguntzako bina sarrera

Garbiñe Otaegi Zabaleta (Alegia)  
Martin Amundarain Ibarluze (Anoeta)



www.aquariuss.com

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan, bi hilaibetez

### 5 Tolosa Goxua

Bi tarta

Nagore Abaigar (Villabona)  
Karmele Begiristain Jauregi (Villabona)



Saridunekin harremanetan jarriko gara



HITZA

## Isidro Lopez › Mendizalea

Euskal mendi guztietan izan da, askotan oinez baino denbora gehiago eginez autoz; azkena (Karria, Araban) eskalatzaileen laguntzarekin igo zuen, bere zailtasunagatik; mendizaletasunaren mundua tristuraz begiratzen du tolosarrak, gazteriaren faltagatik.

# «Euskal Herriko mendi bakoitzak bere xarma dauka»

**Joxemi Saizar** Tolosa

Isidro Lopez Amiano (Tolosa, 1958) mendizaleak eskualdean gutxi egindakoa egin du: euskal mendi guztietan izatea. 1989an hasi apuntatzen eta uda honetan bukatu ditu Euskal Mendi Federazioko katalogoko 594 tontorrak, zazpi probintzietan banatuta. Igoera eta jaitsiera bakoitzaren xehetasunez ondo oroitzeko doaia du gainera tolosarrak.

### **Nolakoa izan ziren zuren hasierak mendian?**

Umetan Aiabarrako iturriko basoetara, Uzturre azpian, Uzturreko erreken jaiolekura eta Ulira joaten ginen gurasoekin igandea pasatzera. Gero Juan Ignacio anaiaren koadrilarekin elkartu nintzen eta ia igandero joaten ginen. Oargin geunden eta gero Alpinoko Uzturrera joan ginen eta elkarte honetan jarraitzen dut. Oroimen berezia dut Atilano Hernandez eta Maritxu Lasa bikotearena, bigarren gurasoak bezala izan ziren niretzat mendian.

### **Eta noiz hasi zinen igotako mendiak apuntatzen?**

Bikote horrek 100 mendien lehiaketa egiten zuen, baina guk ez genuen apuntatzen. 18 urte izatera-

ko Pirinioetako handi batzuetan (Aneto, Perdido, Vignemale) izanda nengoen eta Gipuzkoako Itzulia eginda, baina kontua eraman gabe. Alpinoko Uzturre elkarteko irteeren ardura hartu nuenean Jose Manuel Barriolarekin, hasi ginen lehiaketa hori egiten bere anaia Martinekin, 1989an.

### **Zer da lehiaketa hori?**

Euskal federazioak mendi puntuagarrien katalogo bat dauka, Euskal Herrikoak eta kanpokoak. Egunean mendi bat eta urtean 20 gehienez (bigarren ehunekotik aurrera 25) apuntatu daitezke eta ehun egindakoan diploma ematen dute. Bost aldiz eginda daukat. Emaztearekin egin nuen bigarren ehuneko eta handik aurrera gehienetan bakarrik, semeak jao eta ahal izan dudanean joan izan naizelako. Ez da aukerarik onena, nahiago dut bizpahiru lagunekin joan mendira, baina... Goiz atera (gehienetan igandetan) eta eguerdirako etxera itzultzen saiatzen nintzen. Euskal Herriatik kanpo oso gutxi ibili naiz, Pirinioetan zerbaite bakarrik.

### **Zein izan zen apuntatutako lehena?**

Izaga, Nafarroan, Alpinoren eski irteera bateko autobusa aprobetxatuz.

### **Eta azkena?**

Karria, Araban, uztailean. Banekien zaila zela, tarte batean zertxobait eskalatu behar zelako (*Via ferrata* deitzen dena) eta aurretik esperientzia txar bat izan nuen Zuberoako Argibelen: bideaz nahastu eta ezin gora eta ezin behera joan gelditu nintzen; eskerak eskalatzaile batzuk lagundu ninduten. Horregatik Jesus Mari Ortiz laguntza eskatu eta berarekin eta Cesar Rocarekin igo nuen Karria.

### **Nola prestatu dituzu irteerak?**

Mendi gidak, mapak eta azkenaldian Google Earth erabili dut asko, nire lagunik onena izan da azken urteotan. GPSrik ez dut erabiltzen, baina gauzak ondo mamituta eramatea gustatzen zait. Hala ere batzuetan galdu izan naiz edo tontorra aurkitu ez mendia oso zikina zegoelako (Mendurro adibidez, Iruña inguruan) eta berriro itzuli behar izan dut. Askotan galdetzeko inor ere ez dut aurkitu. Bide ona jaisterakoan aurkitzen duzu kasu askotan, ez igotzerakoan. Eguraldi txararengatik ere utzi behar izan dut kasu batzuetan.

### **Zer moduzko seinalizazioa dago?**

Orokorrean ona, baina denetik

dago. Bizkaian batzuk gaizki markatuta daude eta Gipuzkoan, Zegama inguru horretan, ere bai. Iparraldean adibidez, buzoirik ez dago, harri pila bat kasu batzuetan.

### **Zein egin zaizu zailena?**

Zaboze, Behe Nafarroan. Etsairik handiena ere ez duzu hara bidaliko. Oso zikina da, basoa dago, goroldio asko, saltoka, beti begira joan behar... Gongolatz ere ez da xamurra, Nafarroan. Emaztearekin joan nintzen eta hurrengoan beste bati deitzeko esan zidan.

### **Eta errazena?**

Unbe, Bizkaian. Urbanizazio pribatu baten ondoan dago, txaleetatik 10 metrotara. Batzuetan denbora gehiago pasatzen duzu autoz oinez baino. Badira batzuk errepidea goraino dutenak ere. Nondik igo nahi duzun da kontua.

### **Politena?**

Irubelakaskoa, Behe Nafarroan. Pena da gailurretik ez genuela ezer ikusi eguraldiagatik. Igoera oso polita du. Iparraldea asko gustatzen zait, bailara ederrak ditu. Mendi osoa izatea gustatzen zait: igoera, jaitsiera, paisajea, berdea, arbolak... Harkaitzekin ere bere xarma dauka. Anboto adibidez,

oso polita da eguraldi onarekin. Anie ez da hain erosoa. Mendi bakoitzak bere xarma dauka. Bardeetan ere bai, lur lehorra izan arren. Pirinioetan Puigcerda, Bullosas, Carlit, Puigmal ingurua oso polita da, lasai ibiltzeko.

### **Itsusiena?**

Zaboze, Zuberoan, deserosoa delako. Apario (Bizkaian) ere bai: ertza, pinuak, lurra, entresakak...

«Bide ona jaisterakoan aurkitzen duzu kasu askotan, ez igotzerakoan»

«Burusoil eta kaskazuri asko ikusten dut mendian eta elkarteetan irteeretan»

### **Mendien lehiaketa egiten jarraitzen al duzu?**

Bai, eta hor igotako guztiak puntuatzeko betarik ez dut izan oraindik. Euskal mendi guztietan izan naiz, baina lehiaketako arauak jarraituz datorren urtean bukatuko ditut, 600 eginez. Euskal Herrikoak ez diren 16 ditut tartean. Adibidez, Gorbean bizpahiru aldiz izan naiz, baina puntuatu gabe daukat. Semeekin joan nahi dut. Badira behin baino gehiagotan egondako batzuk, nahiz eta ez gustatu errepikatzea: Hiru Erregeen Mahaia, Aizkorri, Ballo... Eta Uzturre noski. Baina hori izango da azkena puntuatzen, familia osoarekin, eta ondoren bazkaria egingo dugu. Espirailean ari naiz egiten falta zaizkidanak, urrutienetik gertuenera.

### **Eta gero, horiek bukatutakoan, zer egingo duzu?**

Orañ hiltzea badaukadala esaten dit lagun batek, horregatik ez dituela berak denak egiten. Jarraituko dut ibiltzen. Lasaia.

### **Nola ikusten duzu mendizaletasunaren mundua?**

Triste, pena ematen dit, gazteria ez doalako mendira. Burusoil eta kaskazuri asko ikusten dut mendian eta elkarteetan irteeretan. Askok aldatu da bizimodua. Jendea beste era batera dibertitzen da.

### **Ibiltzeko era aldatu egin al da?**

Orañ kompetizioak, martxa luzeak, markak egiteak, harroketak... dute lehentasuna gazteenetzat. Eta horrekin batera materiala eta ohiturak aldatu dira: bastoiak, ura gomatik edatea...

### **Zer diozu janaria?**

Oso pertsonala da hori. Nik ez dut asko jaten. Edaria gehiago eskatzen dit gorpuzak. Hori ere aldatu da: lehen fianbrerak eramaten ziren eta hondarrak elkarteetan afitzeko aprobetxatzen ziren.

### **Zein da komeni den pausoa?**

Lasaia, disfrutatze moduko, korri egin gabe, gorpuzak uzten duena, bakoitzak badaki zer duen eta zer egin dezakeen. «Poeta bezala, ez atleta bezala» joan behar dela dio batek.

# Kultur ekitaldiz beterikoak izango dira datozen bi asteburuak Berastegin

Gaur hasi eta azaroaren 4ra bitarte kultur astea antolatu dute; azken egunean XIV. azoka eguna izango da

**Iñigo Terradillos** Berastegi

Gaur hasiko da Berastegin kultur astea, eta datorren igandean bukatuko da, azoka egunarekin. Tartean adin guztiei zuzenduriko ekitaldiak izango dira herritar orenen eskura.

Bi asteburutan banatuko dira ekitaldiak. Lehen asteburuari dagokionez, berezitasuna etzi Leitzaranen barrena egingo duten ibilaldia izango da. Burdina taldeko kideak bertako karobien berreskurapenean lanean egon dira, eta orain ondare hori ezagutarazteko helburuz, bisita gidatua egingo dute.

## XIV. azoka eguna

Hainbat ikus-entzunezko, hitzaldiak, kantaldiak eta jolasak izango dira, baina, ekitaldi guztietan nabarmentzekoa datorren igandean, azaroaren 4an egingo duten azoka berezia izango da. XIV. azoka eguna da aurtengoa, eta ohi bezala, hamaika postu izango dira jakiak eta askotariko produktuekin. Halaber, lehiaketa ugari ere hartuko ditu azoka egunak, hala nola, XXI. Gazta Lehiaketa, XIV. Postu Lehiaketa, X. Argazki Lehiaketa, V. Ardi, Ahari eta BILDots Lehiaketa, VI. Animali Erakusketa, III. Baratze Lehiaketa eta IV. Arroz Esne Lehiaketa.

Argazki Lehiaketa eta Baratze Lehiaketa burutuak dituzte dagoeneko, eta egun horretan irabazlearen izenak emango dituzte jakitera. Gainerako lehiaketetan parte hartu nahi duten berastegiarrek, urriaren 31 baino lehen eman beharko dute izena, udaletxera deituta (943 68 30 00) edo [kultura@berastegi.com](mailto:kultura@berastegi.com) posta elektronikora idatzita.



XIV. azoka eguna izango da azaroaren 4an. Ohi bezala, postu ugari izango dira. SARA GOMEZ

## ↓ Egitaraua

### URRIAK 26, OSTIRALA

- **16:30.** Askaria eta globo pifñata haurrentzat.
- **21:00.** Ameriketatik ikus-entzunezkoa, Mikel Labaien eta Naiara Aginakoren eskutik, eskolako ganbaran.

### URRIAK 27, LARUNBATA

- **15:30.** Herri mailako mus txapelketa. Gaztainondo jubilatuek artean.
- **22:00.** Kantaldia Garazi Egiguren eta Garazi Esnaolaren eskutik, eskolako gimnasioan.

### URRIAK 28, IGANDEA

- **09:00.** Leitzaranen zehar ibilaldi gidatua, bertako ondare historikoa ezagutzeko, Burdina taldeko kide baten eskutik.

Abiapuntua, herriko plazan. 12:00ak inguruan itzuliko dira.

- **16:30.** Haurrentzako jokoak eta txokolatea, frontoian.
- **19:00.** Berastegiko Salontzokak (1992–2002) DVD emanaldia eskolako ganbaran. Egilea, Luis Sazar. Moldaketa, Julen Agirrezabalarena.

### AZAROAK 2, OSTIRALA

- **21:00.** Hegoaldera bizikletaz ikus-entzunezkoa, Joanes Gibelalderen eskutik, eskolako ganbaran.

### AZAROAK 3, LARUNBATA

- **18:30.** Zorion handiegia, Alice Munro. Nagore Tolosaren azken itzulpen lanaren aurkezpena, eskolako ganbaran.
- **Jarraian.** Sineskeria, magia

eta sorginkeria Euskal Herrian, historian zehar hitzaldia, eskolako ganbaran. Hizlaria, Olatz Etxeberria Mendizabal.

### AZAROAK 4, IGANDEA

- **Goizean.** Azoka berezia. Herriko produktuak izango dira esku-eragailuak: barazkiak, gazta, eztiak, eskulanak... Horrez gain, gazta lehiaketa, postu lehiaketa, ahari, ardi eta bildots lehiaketa, argazki lehiaketa, arroz esne lehiaketa, animalia erakusketa eta baratze lehiaketa egingo dituzte.
- **13:30.** Lehiaketa guztietako sari banaketa.
- **18:00.** Talo jatea eta goizean lehiaketan parte hartu duten gazta eta arroz esneen dastaketa, ardo eta sagardoaren laguntzarekin.

## Teilak eta goxua egiten ikasteko tailerra, Rafa Gorrotxategik gidatuta

**I. Terradillos** Tolosa

Tolosa Goxua azoka izango da bihar goizean Tolosako Trianguloan. Bertan, Euskal Herriko 18—horietatik 5 Tolosako—gozogileren gozoak dastatu eta erosi ahalko dira, eta sagar tarta lehiaketa ere egingo dute. Arratsaldean jarraituko du ekimenak Rafa Gorrotxategik emango duen tailerrarekin. Hain zuzen ere, 17:00etatik 18:30era teilak eta goxua nola egiten diren eta txokolatearen historia azalduko du.

Tailer honetan parte hartzeko azokan bertan, Trianguloan egongo den Tolosaldea Tour-en mahaia eman beharko da izena. Interesatuak 10 euro ordaindu beharko dute.

## Leitzako Udalak parte hartzearen bidez onartuko ditu 2013ko aurrekontuak

**I. Terradillos** Leizta

Leitzako Udalak datorren urteko aurrekontuak herritarren parte hartzearen bidez zehazteko prozesuari ekin dio. Hala, 2013rako egitasmo orokorra azalduko dute gaur, udal ordezkariak jendaurrean, udaletxeko batzar aretoan, 19:00etatik aurrera. Aurrekontuak zer diren, eta gastuak eta sarrierak nola osatzen diren azalduko diete, besteak beste bertarantzaren diren herritarrei.

Bigarren bilera bat egingo dute herriko eragileekin azaroaren 9an, eta hirugarrena azaroaren 16an egingo dute. Azken honetan herritarrek eta eragileek egindako ekarpenak aztertuko dituzte.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



15°  
13°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	13°
HOTZENA	3°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa:  
Lejeune Maset, Leire.  
Euskal Herria kalea 46.  
Harremanetarako telefonoa:  
943 673274.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I.  
Aralar kalea, 25.  
Telefonoa: 112.

**BIHAR**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte Posada, Cecilia.  
Korreoa kalea 20.  
Harremanetarako telefonoa:  
943 676013.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I.  
Aralar kalea, 25.  
Telefonoa: 112.

**ETZI**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant Barber,

Rosalia.  
Zabalarreta lorategiak, 1.  
Harremanetarako telefonoa:  
943 673849.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I.  
Aralar kalea, 25.  
Telefonoa: 112.

**ETZIDAMU**

■ **Tolosa.** Egunekoa Morant Barber, Rosalia.  
Zabalarreta lorategiak, 1.  
Telefonoa: 943 673849.  
Gauekoa Olarreaga Aranburu, Marta.  
Martin Iraola etorbidea 10.  
Harremanetarako telefonoa:  
943 672438.  
■ **Leitza.** Campos MZ.  
Elbarren 52.  
Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Urte askoan!**

Astearteko partez, Villabonatik muxu eta besarkada iraultzaileak.



**Elketa Jatetxea**



- ◆ **Eguneko menua** (asteloheneratik ostiralera)
- ◆ **Plater konbinatuak** (ostiral, larunbat eta igande gauean)
- ◆ **Menu berezia** (larunbat eta igande eguerditan)

San Miguel bailara, 2 • Hernialde •  
943 65 21 16  
[www.elketa.com](http://www.elketa.com)

Erreserba egiteko: